



## Ormaiztegiko Udala

### AKTA

<b>Espediente-zenbakia:</b>	<b>Kide anitzeko organoa:</b>
OB/2022/2	Osoko bilkura

BILKURAREN EGIKARITZE-DATUAK	
<b>Deialdi mota</b>	Arrunta
<b>Eguna</b>	2022ko martxoaren 21a
<b>Iraupena</b>	19:00 et(at)ik 19:35 e(ta)ra
<b>Tokia</b>	Osoko Bilkuren Aretoa
<b>Buru delarik</b>	Jon Enrique Galarza
<b>Idazkaria</b>	Miren Begoña Antxustegi Bengoetxea

BILKURARA BERTARATZEA		
NAN	Izen-abizenak	Bertaratu egin da
37692739V	Agustín Gilabert Molist	EZ
72468988J	Aitor Okariz Elortza	BAI
72457234N	Asier Etxarri Eskisabel	EZ
15999687J	Dunixi Murua Antia	BAI
72482046F	Garazi Hach Embarek Irizar	EZ
08902164Z	Ione Usabiaga Arratibel	BAI
72440052B	Jon Enrique Galarza	BAI
15367305Q	Juan Lobato Amado	BAI
34086903Y	Miren Lierni Yurrita Arregui	BAI

Behin idazkariak egiaztatzen duenean organoa behar bezala eratu dela, presidenteak bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendan bildutako gaiei buruz eztabaidatzen hasi dira

A) ERABAKI ZATIA





## Ormaiztegi Udala

### Aurreko hiru bilkura aktaren onarpena

**Alde**

**Bozketa mota:** Ahobatezkotasuna/Onespena

Udalbatzaren kide diren guztiei helarazi zaizkie hiru akta zirriborroak bilera deiarekin batera, aztertzeko astia izan dezaten.

Bileran eztabaida ireki da eta aukera izan dute ekarpenak, oharrak edo aldaketa eskaerak aurkezteko baina ez da horrelakorik izan.

Bozkatzeari ekin zaio eta aldekoak izan dira boto guztiak. Ondorioz, onartuta geratu dira aurreko hiru bileren aktak.

### 83/2022 espedientea. AIZABAL GARAIKOA Protección de la Legalidad Urbanística

**Alde**

**Bozketa mota:** Ahobatezkotasuna/Onespena

Aizabal Garaikoa baserrian baimenik gabe egindako lanek eragindako espedientearen berri emateko igortzen da espedientea Batzordearen bilerara.

Alkate jaunak azaldu du Aizabal Garaikoan eraikin berri bat ere egin dela eta arkitekto ahokulariak detektatu duela Visor geoEuskadiren bitartez.

Ondorioz, uste genuen baino arau hauste handiagoaren aurrean egon gaitezkeela adierazi du alkateak eta espedientearen beharra azpimarratu.

Eztabaida ireki da eta batzordekideak alde agertu dira. Bozkatu egin da eta ahobatez onartu.

Idazkari andreak aurretik Hirigintza Batzordearen aldeko irizpena izan duen espedientearekin aurrera jarraitzeko akordioa hartu ala ez erabaki behar dela azaldu du, espedientea izapidetu ondoren, arau-haustea izan dela frogatuko balitz, hirigintza legaltasuna berrezartzeko, baimenik gabe egindako lanen erausketa agindua eman beharko litzatekeela adieraziz.

Aurretik Batzordearen bileran eztabaidatuako gaia izanik, zinegotzi jaun-andreek ez dute zeresanik izan eta bozketa egin da. Aldeko botoak izan dira guztiak eta, ondorioz, ahobatez adostuta geratu da.

### 97/2022 espedientea. Muxika Egurastokia eraberritzeko BEHIN BETIKO proiektua

**Alde**

**Bozketa mota:** Ahobatezkotasuna/Onespena

Obra egitasmoan izan den aldaketaren berri emateko igortzen da espedientea. Aurretik hartutako Akordioa berresteko proposamena aurkeztzen da.

Izan ere, berresteko ekarri den proiektuan, kioskoa txikitu egin da eta eremuak San Andres kalearekin daukan lotura, eskailerekin egin beharrean, arrapala bitartez egingo da. Horrek espedientearen adierazten den gailurak izango luke. Eztabaida ireki da eta ez da ekarpenik izan. Bozkatzeari ekin zaio eta aldekoak izan dira boto guztiak.

### 121/2022 espedientea. Energia kontrolerako sistema ezartzea. Contrataciones.

**Alde**

**Bozketa mota:** Ahobatezkotasuna/Onespena

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak agintzen dituen obligazioak bete ahal izateko eta 254/2020 DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak zehazten duenari erantzuteko, GOIEKlren gidaritzapean eta eginkizun hauek eskualdeko beste Udal eta erakunde batzuekin batera, alkate jaunak Udalaren energia kontrolerako sistema baten ezarpena proposatzen du.





## Ormaiztegiko Udala

Helburu horrekin, 121/2022 espedientea atxikitzen zaio Osoko Bilkurarako deialdiari, bertan jasotzen den memoria eta araudia zinegotzi jaun-andreen eskura jarriz, gaia aztertzeo aukera izan dezaten.

Alkate jaunak sistemaren xehetasunak eta kostua azaldu ditu, baita finantzazioan laguntzeko dirulaguntzak aipatu ere. Espedientean jasota geratu dira memoria eta proposamena.

GOIEKIK HISPAVISTA enpresa kontratatzea erabaki du helburua betetzeko.

Idazkari andreak galdetu du ea GOIEKIK nola lizitatu duen kontratua, kontuan izanik ez dela erakunde publikoa. Alkate jauna galdetzekotan geratu da.

Ez da beste galderarik edo oharrik izan. Bozketa egin da eta ahobatez onartuta geratu da.

### 122/2022 espedientea. Ikastolaren birgaitze integrala burutzeko dirulaguntza eskaera aurkeztea

**Alde**

**Bozketa mota:** Ahobatezkotasuna/Onespena

Alkate jaunak ikastolaren birgaitze integrala burutzeko beharra ikusten du eta hori finantzatzeko aukera ona iruditu zaio Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia delakoaren barruan emango diren dirulaguntzen deialdian eskaera aurkeztea. Estatuko Gobernuak da bideratuko dituen Europar Batasuneko funtsak erabiliz eta une egokia izan daiteke ikastolaren eraikinaren eraberritzea hartzeko.

Osoko Bilkuraren deiarekin batera helaraziko zaie zinegotzietan 122/2022 espedientea, dirulaguntza honen oinarriak aztertzeo dokumentazioa eskuan izan dezaten.

Alkate jaunak azaldu du dirulaguntzak bi lerro nagusi dituela. Batean, ikastolaren "envolvente" termikoa egiteko laguntza eskatu daitekeela eta finantzazioa % 100koa izan daitekeela.

Bestean, ikastola birgaitzeko egiteko dauden lanak sar daitezkeela eta finantzaioa % 85ekoa izan daitekeela. Hortaz, eraikinak mende erdi baino gehiago duela ikusirik, eta teilatua, paretak, e.a. hobetu beharra dutela kontuan hartuta, aukera paregabea iruditzen zaiola adierazi du alkate jaunak.

Horrez gain azpimarratu du, Europatik datorren dirulaguntza izanik, beste era batera izapidetzen dela eta tramitazioa konplexua dela baina abantailak ere badituela, eskaria onartuz gero, dirulaguntza lanak egiten hasi aurretik ematen baita. Hori bai, lanek 2024ko apirilera burututa egon beharko lukete eta energiaren aurrezki gutxienez % 30ekoa dela egiaztatuta beharko genuke.

Eztabaida ireki da eta ondoren bozkatu. Aldekoak izan dira boto guztiak eta ahobatez onartuta geratu da.

### B) KONTROL-JARDUERA

Idazkari andreak adierazi du Alkatzetzaren Ebazpenak gai zerrendan sartzea ahaztu zaiola eta hurrengo bileran aurkeztekotan geratu da.

### C) GALDE-ESKEAK

Ez dago gairik





## Ormaiztegi Udala

---

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA



Baliozkotze Kod.: 9TKHL28HZKTK93ZNMAGCM3KN | Egiaztapena: <https://ormaiztegi.egoitzaelektronikoa.eus/>  
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 4